

ENPRESA POLITIKA

TRANSITIA Euskadin aberastasuna eta enplegua sortzea helburu duen eta gure herrian apustu estrategikoak gauzatzea jomugatzat duen sozietatea da. Garraio arloan irtenbideak emanaz gaur egungo gizartearen beharrei erantzutea du xede; horretarako, UNE-EN-ISO 9001, UNE-EN-ISO 14001, OHSAS 18001 eta UNE-EN-ISO 39001 arauetara jarraituz kudeaketa sistema egoki bat ezarri du.

TRANSITIAk garraio sektoreko enpresa liderra izatea gura du, horretarako, arlo honetako zerbitzu publikoen kudeaketaren aldeko apustu garbi eta sendoa egiten du.

Transitiako Zuzendaritza Nagusiak pertsona ororen eta langile guztien segurtasuna bermatzea du lehentasuneko helburutzat; baina baita etengabeko hobekuntza prozesu baten ondorioz, bezeroen erabateko asetze maila lortzea, ingurumena beti errespetatzea eta istripuak ekiditea, horretarako lege aplikagarriak eta enpresa berak zehaztutako zenbait betekizun premisatzat hartuta. Helburu horiek lortzeko, enpresak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- Orokorrean kutsadura ekiditea eta ibilgailuen isuriak murrizteko ahaleginak egitea batez ere.
- Garapen jasangarri baten mesedetan garraio publikoaren aldeko apustua egitea berau erabiltzearen alde eginaz.
- Kalte eta osasunarentzat mingarri diren trafiko eta lan istripuen ondorioak saihestearren Lan Arriskuen Prebentziorako, Mugikortasunerako eta Bide Segurtasunerako plan bat martxan jartzea. Honez gain, Laneko Osasun eta Segurtasuna eta Bide Segurtasuna etengabe hobetze aldera, akzio eta ekintza egokiak eta neurri zuzentzaileak martxan jartzea arrisku egoerak atzemateko. Esparru honek helburuak zehaztu eta berrikusteko balioko du.
- Giza baliabideak gehienera optimizatu, eta hondakinak ahal diren neurrian ezabatu, saihestu, edota murriztu.
- Bezeroen poztasuna hobetu, eta kalitatezko zerbitzu berritzaile bat eskaintzea.
- Balore hauek **TRANSITIA**-ko giza zerbitzu osora eta zuzendaritzara adierazi.
- Merkatu berrietan sartzen ahalegindu.

Ondoren zehazturiko helburu eta xedeak lortzeko lanean jardungo dugula azpimarratu:

- Prozesuen eraginkortasuna hobetzea.
- Ezadostasun, istripu, trafiko istripu eta ingurugiro gertakariak murriztea.

Enpresako arduradun nagusia izanik, Lan Arriskuen Prebentzio, Mugikortasun eta Bide Segurtasun planak martxa on batean jartzeko, berau helarazteko eta bere betebeharrak adierazteko giza baliabide guztiak ematea hitzematzen dut. Hau lortzeko enpresako langile guztien parte-hartzearekin kontaktuko dudala ez dudala zalantzan jartzen gaineratu.

Azkenik, politika hau nahi duenarentzat eskuragarri dagoela (bezero, erakunde, hornitzaile...) esatea besterik ez zait geratzen.